# Pecha Kucha: aurkezpen arin eta biziak

Pecha Kucha diapositiba emanaldi berezi bat da, saioaren ezaugarriak guztiz zehatzak baitira:

- 20 diapositibaz osatzen da
- Diapositiba bakoitza 20 segundoko iraupena du
- Guztira 6 minutu eta 40 segundo

Hasiera batean diseinuari eta sormenari lotutako jardunaldietarako sortua izan bazen ere, **gelan erabiltzeko tresna bikaina da. Zergatik?**

1. Gure hitzaldia laburtu behar dugunez, bakarrik funtsezkoa adieraziko dugu eta, ahal den neurrian, modu erraz eta erakargarrian
2. Aurkezpena biziagoa eta une aspergarririk gabekoa izatea bideratu dezake
3. Elementu bisual eta tipografikoak aurkezpenaren ezaugarri adierazkorrak izatea beharrezkoa bihurtzen da
4. Ahozko komunikazioa eta multimedia tresnen erabileran trebatzeko baliabide aparta da



# Pecha Kucha eraginkor bat egiteko aholkuak

Pecha kucha ez da aurkezpen arrunta:

- Diapositiba segida neurtu bat aurkeztuz gai bati buruz hitz egitean datza
- Diapositiba bakoitza 20 segundo, guztira 6 minutu eta 40 segundo dituzu; beraz, sinplifikatu!

**Erabili Ideia–"indartsuak"**

- Ez apaindu diapositiba gehiegi kargatuz: ideia modu sinple eta ikusgarrian eman
- Zaindu ezazu diseinua: "Gutxiago gehiago da"

Pentsa ezazu urrun dauden ikusleengan: aukeratu **tipografia argiak** eta irakurgarriak, eta erabili **irudi esanguratsuak**

Osotasuna parteen batura baino gehiago izan behar du:

- Ez ahaztu Pecha Kucha elementu guztien batura dela: **edukia**, **forma** eta zure **hitzaldia**
- **Prestatu ezazu aurretik**, bila ezazu **publikoarekin konektatu**ko duen giltzarria, ongi pasa, eta batez ere **komunikatu**




Educacontic: Nestor Alonsoren consejos para hacer un buen pecha kucha

**PechaKucha edo Pecha Kucha** (ペチャクチャ?) ideiak aurkezteko formatu arin eta ez-formal bat da. Formatuaren oinarria 20 x 20 da, hau da, 20 ordenadore-diapositiba 20 segundutan bakoitza. Normalean aurkezpen kreatiboak dira, irudietan oinarrituta. Jatorriz Tokioko (KDa) Klein-Dytham Architectureko Astrid Klein y Mark Dytham sortzaileek 2003an asmatu zuten. Hasierako ideia diseinadoreen bilgune baterako sortu zuten aurkezpen arinagoak eginez eztabaidarako denbora gehiago uzteko eta, aldi berean, ekintzaren dinamika aktiboago izateko.




Aurkezle bakoitzak 20 irudi edo diapositiba aurkezteko aukera du, irudi bakoitzak hogei segundotan. Aurkezpen osoak 6 minutu eta 40 segundo irauten du. Ondoren, pausa bat egin ondoren, hurrengo aurkezpena egiten da. Guztira hamalau aurkezpen izaten dira. Orokorrean, diseinu munduan hasi zen ideia aplikatzen eta laster arkitekturan, argazkigintzan eta artea zabaldu zen. Egun arlo oso desberdinetan erabiltzen da, bereziki negozioetan eta hezkuntza munduan. Euskal Herrian Lanbide Heziketako munduan zabaltzen ari da.

## Informazio gehiago:

PechaKucha (wikipedia).
Pecha Kucha FAQ.
Pecha Kucha 20 x 20.
Pecha Kucha Tips - Simplicity, Flow and Passion

Guide to Making a Pecha Kucha Presentation
Cómo crear contraste y emoción con texto
12 consejos para futuros ponentes de Pecha Kucha
Pecha-kucha.org en twitter

# CONSEJOS PARA HACER UN BUEN PECHA KUCHA




by amaiafilo

CC BY NC SA